

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2011ko URRIAREN 6an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2011ko urriaren 6an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Karlos Irazu Muñoa
Jon Tejeria Otermin


Bere ezin etorria azaltzen dute: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea, Imanol Aranzabal Lasa eta Aritz Usandizaga Larrañaga.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - 2011ko irailaren 7an egindako ohiko bilkura
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Tolosaldea Garatzen 2011 urteko ekarpenaren bigarren zatiaren ordainketa burutzea, hala bada.**
- 4. Parke aldameneko aparkalekuaren alokairu kontratua onartzea eta Alkatea ahalmentzea kontratua sinatzeko, hala bada.**
- 5. Larraulgo Guraso Elkarteak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 6. Larraulgo bidezidorren mantentze-lanerako konpromisoaren onespena, hala bada.**
- 7. Fakturak eta ordainketak.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

- 2011 urteko irailaren 7ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

17/2011 Alkatetza Ebazpena, irailaren 16koa, Urriaren 1 eta 2an herriko parke zaharrean dagoen aparkalekua kotxeentzako, ixteko baimena ematea, data horietan hainbat herritarrak bertan sutarako egurra moztuko dutelako, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira

HIRUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZENI 2011 URTEKO EKARPENAREN BIGARREN ZATIAREN ORDAINKETA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek eginiko eskaera, non Larraulgo Udalari eskaera egiten dion, 2011. Urteari dagokion ekarpena burutu dezan, bere zenbatekoa 4.095 euro delarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.


Ikusirik lehen ekarpena martxoaren 30ean burutu zela, bigarren ekarpena burutzeko eskaera luzatzen duelarik Tolosaldea Garatzenek.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzeni, 2011urteko bigarren ekarpena burutzea, hau da, 2.047,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 2.047,50 eurotako gastua onestea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

PARKE ALDAMENENKO APARKALEKUAREN ALOKAIRU KONTRATUA ONARTZEA ETA ALKATEA AHALMENTZEA KONTRATUA SINATZEKO, HALA BADA

Ikusirik 2011 urteko maiatzaren hamaikan, Larraulgo Udalak bere borondatea azaldu zuela Usandizaga Ceberio familiarekin, parke aldamenean dagoen aparkalekua alokatzeko kontratua berritzeko.

Ikusirik, Usandizaga Ceberio familiak ere bere adostasuna azaldu duela, parke aldamenean dagoen aparkalekua alokatzeko kontratua berritzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Usandizaga Ceberio familiarekin, parke aldamenean dagoen aparkalekua alokatzeko kontratua berritzea, bost urteko iraupenarekin, hau da, 2011/08/01-2016/07/31bitartean. Alokairuari, urtero dagokion KPI-a (Kontsumo Prezio Indizea) aplikatuko zaio. 2011/08/01-2012/07/31 epealdiko alokairua 200,00.-eurotako izango delarik.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakari jauna, Usandizaga Ceberio familiarekin egingo den kontratua sinatzeko ahalmena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Usandizaga Ceberio familiari ematea.


BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO GURASO ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Guraso elkarteak aurkezturiko idatzia, non ondorengoa dioen:

“Uztailean udalari egindako jakinarazpenean genion bezala ba dira jada lau urte jarraian etengabe Antton Amonarriz Kultur etxean kokaturik dauden egongelak garbitzen ditugula, hau dela eta egunerokotasunean gehien erabiltzen diren aparailuen egoerak gainbehera jasan du, batez ere xurgagailua eta fregona kuboak. Ikasturtearen hasierarako xurgagailuaren gainaldeko tapa berriturik dagoela ikusi dugu baina honen xurgatze muturraren egoera kaxkarra da oso, hau zinta itsaskorrarekin konpontzen saiatu garen arren egungo egoerak ezinezkoa egiten du bere erabilpen zuzena.

Uztailean egindako eskaera kontutan hartzea eskertzekoa da baina xurgagailu mutur berri bat beharrezkoa jotzen dugu gure eguneroko bete beharrak zuzen egiteko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Honen harira duela lau urte egindako garbiketa hitzarmenean adostutako diru kopuru berdina jasotzen ari gara gaur egun, jakin badakigu ekonomikoki egoerarik onena ez dela ari jasaten gure gizartea baina gauza guztiak urteko dagokien igoera jasateko gai garenez kultur etxearen garbiketaren kostuari dagokion berezko igoera aztertzea luzatu nahi diogu udalari.

Bide batez 2010/2011 ikasturteko garbiketaren jarraipen fitxak eta memoria jaso dezazue egindako lanaren lekuko.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Guraso Elkarteari jakinaraztea, Larraulgo Udalak, xurgagailua konponduko duela (konpontzea posible balitz, bestela xurgagailu berri bat erosiko du), eta fregonarentzat kuboia berri bat erosiko duela.

BIGARRENA: Larraulgo Guraso Elkarteari jakinaraztea, garbiketa hitzarmenean adostutako diru kopurua berdina izaten jarraituko duela, hau da, diru kopuru horri KPI-a ez diola aplikatuko.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri Larraulgo Guraso Elkarteari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

**LARRAULGO BIDEZIDORREN MANTENTZE-LANERAKO
KONPROMISOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo bidezidorrak homologaturik mantentzeko hainbat irizpide bete behar dituela eta Udalak konpromiso bat onartu behar duela eta mendi federazioari bidali behar diola mantentze konpromisoa.

Ikusirik Larraulgo Udalak interesa duela bidezidorrak homologaturik mantentzea, horretarako beharrezkoa den konpromisoa onartuko duelarik.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo bidezidorren mantentze-laneko konpromisoa onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako mendizale federazioari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IKERMAP IBAETA S.L.	13.102,72
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	599,53
ZITU	42,00
MANPEL	35,35
EINBER PREVENALIA	457,96
GALPARSORO	218,30
MANPEL	143,30
IHOBE	300,00
GIPUZKOAKO URAK	2.907,05
FERRETERIA BARBE	38,41
KIROLZER	113,45
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	139,09
IBERDROLA	101,86
IBERDROLA	166,46
IBERDROLA	193,35
IBERDROLA	74,47
IBERDROLA	23,45
IBERDROLA	42,61
IBERDROLA	28,19
IBERDROLA	146,33
IBERDROLA	137,79
IBERDROLA	185,81
IBERDROLA	143,29
IBERDROLA	54,27
IBERDROLA	10,86
IBERDROLA	115,35
IBERDROLA	16,60
REPSOL	38,72
REPSOL	7,88
MOVISTAR	69,87
MOVISTAR	17,94
MOVISTAR	86,37
MOVISTAR	20,47
EUSKALTEL	112,65

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **19.891,75** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

7.1. EKIPAMENDU PUBLIKO BATEN LERROKADUREN ZEHAZTEA LARRAULEN, DOKUMENTUA IDAZTEKO ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak Udaletxe atzean dagoen orubean eraikin balionitz bat egiteko asmoa duela, horretarako derrigorrezkoa egiten delarik ekipamendu publiko baten lerrokadura zehaztuko duen dokumentu bat egitea.

Ikusirik, lan hori gauzatzeko Udal Aholkulari teknikoa den, Eba Erkizia Brion arkitektoa prest dagoela egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Eba Erkizia Brion arkitektoari, ekipamendu publiko baten lerrokaduren zehaztea Larraulen, izeneko dokumentua idazteko esleipena onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Eba Erkizia Brion andreari ematea.


ZORTZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ondoren Tentsio Altuko linea L/400 Kv Dicastillo-Itxaso kontrako mozioa aurkezten da, ondorengoa delarik:

“ARRAZOIEN AZALPENA:

2011ko abuztuan, Espainiako Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren mendeko Ingurumen Kalitate eta Ebaluazioko zuzendari nagusiaren komunikazio bat jaso zuten azterketaren eremuan dauden udalek, ondorengo gaiaren inguruan: «20110173LIE proiektuaren, Deikaztelu izeneko 400/220 Kv-ko azpiestazioa eta harekin lotutako 400 kV-ko lineak (Iruñea) izenekoaren, ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren gaineko kontsultaren erantzuna».

Jasotako dokumentazioak erreferentzia egiten dio Red Eléctrica de España, SAk 400 kV-ko linea bat eraikitzeko proiektuari. Horren helburua Itsasoko (Gipuzkoa) azpiestazioa Deikaztelun (Nafarroa) eraikiko den 400/220 kV-koarekin lotzea da eta Deikaztelukoa Castejón-Muruarteko L/400 kV-koarekin. Aztertzen ari diren lotura berriak



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

egiteko, 400 kV-ko bi linea ezarri beharko lirateke. Guztira, 120 km-ko luzera izango dute, eta, horrez gain, 6 ha-ko azpiestazio elektriko bat eraikiko litzateke.

Proiektu honek Gasteiz/Castejón-Muruarte linea ordezkatu du. Izan ere, proiektu hori bertan behera geratu zen, 274. Estatuko Aldizkari Ofizialaren, 2010eko azaroaren 12koaren, arabera, ingurumenean zuen eraginarengatik eta herritarrak proiektuaren aurka agertu zirelako.

Lehen proiektua bertan behera gelditzea eta herritarrak aurka agertzea eragin zuten arrazoiak berberak dira orain, edo agian larriagoak.

Linea berriaren ezaugarriak aurrekoaren antzekoak dira: 42/46 metroko dorreak, 400/500 metroko tartean jarrita, eta 4 oineko hormigoizko oinarriak dituztenak, beren artean 5,90 eta 10,14 metro arteko tartea dagoela. Debehatuta dago linearen inguruan zuhaitzak landatzea eta eraikinak eta industria instalazioak altxatzea.

Ingurumen eta paisaiarekiko eragina ez da onargarria, hasierako dokumentuan proposatutako ibilbide guztiek babestutako espazioei eragiten baitiete gutxi asko, Natura 2000 Sareari barne. Labur esanda, lineak eragina izango luke hainbat legedik –Europakoa, estatukoa, foru erkidegokoa edo autonomia erkidegokoa– babestutako berrogeita hamar bat eremutan. Zehatz-mehatz, aurreikusitako 19 zatietatik 17k babestutako espazio edo espezieei eragingo liekete, eta kontuan hartutako 69 alternatibetatik batek ere ez ditu betetzen gutxienezko baldintzak ingurumenaren ikuspegitik.

Gauza bera gertatzen da eremu elektromagnetikoen osasunean duten eraginarekin: linea egiteko aurreikusten den ezein alternatibak ez ditu betetzen Europako Batasunak arretaren izenean aholkatzen dituen distantzien irizpideak. 19 zatietatik 14 herri batetik 500 m-ra baino gutxiagora daude; hain zuzen ere, Nafarroa eta Gipuzkoako 43 herriri eragiten die horrek. Egoera zatiz zati aztertzen badugu, hasierako dokumentuan aurreikusitako 69 alternatibak kontuan hartuta, konturatzen gara ez dela posible ezein korridorarik aintzat hartzea. Izan ere, haietan guztietan herriak daude segurtasuneko distantziaren barruan.


Horrez gain, erantsi beharko genuke informazio gutxiegi dagoela lineak hainbat arlotan izango lituzkeen ondorioen inguruan, hala nola, ingurune sozioekonomikoan, turismoan eta aisialdiko eremuetan, ondarean edota lineak zeharkatzen dituen erkidegoen legedietan planteatzen den lurralde ereduarekiko bateragarritasunean.

Proiektu honek eragin negatiboa izango luke Nafarroako zein Gipuzkoako lurraldearen zati handi batean, hainbat arlotan izango lituzkeen ondorioengatik: paisaian, ingurumenean, herritarren osasunean, ekoizpen sarean edo lehen sektorean.

Hori dela eta, udal honek, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

1.- Itsasoko (Gipuzkoa) azpiestazioa eta Castejón-Muruarteko (Nafarroa) linea lotzeko 400 kV-ko linea elektrikoa ezartzeko proiektuaren aurka agertzea, baita proiektuan aurreikusitako azpiestazio berriaren aurka ere.

2.- Red Eléctrica de España, SAre hasierako dokumentuan aurreikusitako korridore guztien aurka dagoela azaltzea, eta interes kolektiboaren ikuspegitik tentsio altuko linea horrek ez duela justifikazio nahikorik salatzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3.- *Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei, Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari eta Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioari eskatzea proiektuaren aurka ager daitezela, ez baita onargarria paisaiaren eta ingurumenaren ikuspegitik, herritar guztientzako funtsezko eremuei eragiten die eta.*

4.- *Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioari, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari, Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari erabaki hau igortzea eta hedabideen bitartez zabaltzea. “*

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 19.55 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA